

EREMUAK

Programa irekia

eremuak testuinguru artistikoak eratzeko, ezagutza sortzeko eta gizartean zabaltzeko gune bat da.

Ekoizpen artistikoari ematen zaizkion laguntzen politikari buruzko gogoetaren emaitza gisa, pertsonak eta pentsamendu-ildoek elkarri eragiteko espazio anitz sortzeko helburua du programak.

Hona hemen eremuak ekimena. Kultura Sailak, Eusko Jaurlaritzaren politika kulturalaren jarduera eremua inplementatzeko eta birdefinitzeko asmoz, artearen sistema gizarte garaikidearekin bat eginez optimizatuko duen programa irekia eta jarraitua jarri du abian.

jatorria

Artearen eremuko hainbat gizarte-eragileren eskakizunean du jatorria eremuak programa irekiak. Eragile horien arabera, arte garaikidearentzat inguruneak edo testuinguruak (ebaluatzeak) sortzeko “premia” dago Euskadin, 2008an, 2009an eta 2010ean Eusko Jaurlaritzan ekoizpen artistikoari eman zaizkion diru-laguntzei buruz egindako gogoetarekin bat eginez. Gogoeta hori erakundeetako ordezkariak eta Euskadiko artearen eremuko hainbat eragilek osatutako lan-taldean baitan egin da.

Arte garaikidearen eremuan, orain arteko politika kulturala sari eta diru-laguntzetarako deialdietan oinarritu da, soil-soilik, eta ekimen horiek artearen sustapenari laguntzen badiote ere -arte diziplinetatik abiatuta ulertuta-, funtzio eta helburu nahiko mugatuak dituzte. Jarduteko modu horren ondorioz, lan-talde horien iritziz, artea kategoriatan sailkatzeko joera sortzen da, eta beharrezkoak badira ere, beste batzuk ere posible dira. Lan-talde horiek, halaber, ikuspegi berriak eskatzen dituzte politika kulturalaren barruan, gogoeta egiteko aukera emango dutenak, bai gertaera artistikoa sortzen den lekuari eta moduari buruz, bai arte garaikideak tradizioz bete

ez dituen arloetara sorkuntza zabaltzeko aukerari buruz. “Arte garaikidearentzat politika espezifikoak izanik, politika kulturalaren espazioa zabaldu eta birdefinituko dituzten ekintzak sustatzea” izan da gogoeta horren ondoren hartu den erabakia.

filosofia

Horren guztiaren ondorioz sortu da eremuak: programa irekia, aurretik izan diren ikuspegi eta jarduteko moduekiko disruptiboa, testuinguru eta motibazioak, berezkoak zein intuizioz jasoak, sortzeko eta inplementatzeko asmoa duena. Ildo horretatik, programa honen jarduera-eremua garaikidetasunarena da, inondik ere. Garaikidetasuna da, hortaz, eremuak programaren ardatz gidaria, arte garaikidearentzako proposamen artistikoak, diskurtsoak eta testuinguruak hartzeko eta sustatzeko proposamena baita. Programaren misioa testuinguruen garapenean laguntzea da, testuinguruak elkarri eragiten dioten eta egoera jakinen aurrean erreakzionatzen duten pertsonak eta pentsamendu-ildoek osatutako espaziotzat hartuta; eta, halaber, ezagutza sortzea eta gizartean zabaltzea bilatzen du programak. Egiletza (pertsonak) eta diskurtso (pentsamendu-ildoak) horiek arte-testuinguru garaikide berriak sortzea da azken helburua.

eremuak programaren ezaugarriak

egiletza vs. artistak

Sorkuntza garaikidea banakakoa zein kolektiboa da, eta ezin da gizabanakoetara edo sinaduretara mugatu. Sorkuntza garaikidea prozesu oso kutsatuen emaitza da, eta gizartearen hainbat segmentuk parte hartzen dute prozesu horietan. eremuak programak era horretako sorkuntzei zabaldu nahi die espazioa.

testuingurua

Elkarri eragiten dioten eta egoera jakin batzuen aurrean erreakzionatzen duten pertsonen eta pentsamendu-ildoen osatutako espazioetatik sortzen da testuinguru bat. Eremuak programak arte garaikideko testuinguru berrien sorrera bultzatu nahi du, eta, horretarako, sorkuntzarekin zerikusia duten hainbat arazo proposatuko ditu.

eraldaketa

Pertsona-sareek eta horiek jarduten duten testuinguruak elkarri baldintzatzen diote. Sorkuntza garaikideak dagokion sorlekuetan eragitea eta leku horien eragina jasatea da, azken batean, eremuak programak lortu nahi duena. Eta leku horiek ez dira espazio fisiko eta lurralde soiltzat hartzen, partekatutako espazio mentaltzat baizik.

organikoa eta irazkorra

Elkarri kutsatzen dioten indar aktiboen elkarrekintzaren emaitza da garaikidetasuna. Eremuak programak izaera organiko eta irazkor hori beretu nahi du, programa arin eta aldakor baten bitartez, ideiak, iritziak eta proposamenak etengabe trukatzeko dituen programa baten bitartez. Eremuak programaren egitura bera ezaugarri horien araberakoa da, eta batzorde antolatzailea eta programan parte hartzen dutenen taldea edizioz edizio berrituko da.

nola gauzatuko da eremuak

Lan-taldean sortutako gogoetaz, diskurtsoez eta testuez gainera, praktikaren bitartez ekarpenen bat egitea izango da eremuak programaren erronketako bat: arte garaikidea testuinguruen identifikaziotik eta inplementaziotik abiatuta aztertzea, ikerketarako, garapenaren elkar mendekotasunerako eta sormenerako espazioak zabaltzea.

Honako galdera honi erantzun behar zaio: Zer testuinguru behar ditu arte garaikideak artearen eta artistaren arteko harremana jadanik ez bada zuzena eta nahikoa?

eremuak da, hain zuzen ere, erantzuna. Izan ere, hainbat egileren proposamenak garatzeko gai diren sormenezko proposamenetara irekia da programa hau, eta arte garaikidearentzat onuragarriak izango diren testuinguruak sustatzeko xedez jardungo du. Kontzeptu ireki batetik eta eboluzioan diren jardunbide garaikideen prozesu batetik abiatuta diseinatu da. Eremuak ez da urtez urte errepikatzen den programa bat, “zuzeneko” programa bat baizik, arte garaikideko testuinguruak sortzeko aukerak eta eraldaketak bultzatzen dituena.

nork parte har dezake eremuak programa irekian

eremuak zabalik dago egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez, diskurtso garaikideen arloan jarduten duten banakako egileen edo herritar taldeen proposamen artistikoak hartzeko xedez. Hortaz, kontuan hartuko dira finkatuta dauden artearen diziplinak, hala nola pintura edo bideo-sorkuntza, zein diskurtso artistiko garaikideen sorkuntzan dihardutenak, hala nola dantza, arkitektura, paisajismoa, sorkuntza sozialeko taldeak, zientzia... “Arte garaikidea” izendapenaren baitan, gizartean garrantzizko funtzioak betetzen dituzten sorkuntzaren alorreko jardueraz gainera, beste hainbat kontzeptutan, esate baterako, sormenean, ikerketan, nortasunean, desberdintasunean, etab. funtsezko eginkizuna betetzen duten sorkuntzaren alorreko jarduerak ere sartzen dira, eta ideia hori zabaldu eta sustatu nahi da, hain zuzen ere, programa honen bitartez. Arte garaikidea ez da artistetara eta haien ekoizpen-baldintza sozialetara mugatzen; aitzitik, lotuta dago eremu espezifikotik, hala nola hezkuntza, kritikan, banaketan, merkaturatzean, gizarte aurrerapenean, etab. diharduten beste egitura batzuekin ere.

programaren funtzionamendua

Batzorde baten inguruan antolatuko da programa. Batzorde hori arte garaikidearen baitan gizarte eragile gisa ezagunak diren 3 lagunek osatzen dute, eta bertan hautatuko dira proposamen artistikoak eta lagunduko zaie gauzatzeko prozesuan; bertan sortu eta definituko dira testuinguruak; eta bertan proposatuko dira arazoak. Batzorde horrek, edizio bakoitzeko, urtean zehar aurkeztutako hainbat proposamen hautatuko ditu, programan parte har dezaten. Batzordeak proposamenen sorkuntza libre bultzatuko du, beraz, ez da lehentasunezko diziplina artistikorik izango. Egiletzak banakakoak zein taldekoak izan daitezke, eta batzordeak testuinguruak sortzeko finkatuak dituen parametroen arabera egingo da hautaketa.

eremuak programaren kokapena

eremuak programaren egoitza egonkor bakarra webgunea izango da. eremuak harrera egoitzak izango ditu, eta programaren garapenaren arabera, egoitza fisikoa beste espazio batzuetan kokatu ahal izango du.

eremuak esperientziaren asmo nagusia, sorreratik beretik, “beta bertsio” bat izatea da, hau da, programa ireki eta dinamiko bat, testuinguru, egiletza eta esperientzia berriak, eta batzordearen ekarpenak, gehitu ahala eraikiko dena. Programa ez da urtero errepikatzen den sistema gisa osatu, esperientziaren bitartez, edizioz edizio, ikasten duen sistema gisa baizik.

